
Introducción

Este libro recoge las reflexiones resultantes del Encuentro de la Asociación Española de Investigación para la Paz (AIPAZ) de 2005, celebrado en Gernika (Vizcaya) los días 14 y 15 de octubre y organizado por AIPAZ, en colaboración con las organizaciones miembro Bakeaz, Gernika Gogoratuz y UNESCO Etxea. En concreto, se reúnen aquí la ponencia marco que abrió el encuentro y las presentaciones, ponencias y debates de cada uno de los tres bloques temáticos que lo conformaron, así como una comunicación.

El encuentro de 2005, titulado *El papel de la investigación para la paz ante la violencia en el País Vasco y sus derivaciones sociopolíticas*, se inició con un discurso del alcalde de Gernika-Lumo y presidente de la Fundación Gernika Gogoratuz, Miguel Ángel Aranz, así como con las palabras de bienvenida de Xesús R. Jares, presidente de AIPAZ, y Maixabel Lasa, directora de la Dirección de Atención a las Víctimas del Terrorismo del Gobierno vasco.

Fue precisamente Xesús R. Jares quien dio comienzo al encuentro propiamente dicho con la presentación de la ponencia marco, titulada «El papel de la investigación y la educación para la paz ante la violencia terrorista. La respuesta educativa en el País Vasco». Jares defiende que se integre el análisis de los terrorismos en el currículum escolar y, en el País Vasco en particular, que se aborde en las aulas el terrorismo de ETA, y que se lleven a cabo procesos de solidaridad con las víctimas y de reconciliación en el conjunto de la sociedad. Propone trabajar en cuatro aspectos fundamentales: resaltar el valor de la vida humana y la dignidad de todas las personas; educar en la crítica de los maniqueísmos y la construcción del enemigo, así como en el rechazo y la prevención del odio; combatir el miedo y la desconfianza; e incentivar las actitudes

de solidaridad con las víctimas y considerar a éstas como sujeto educativo.

El resto del encuentro se organizó en tres bloques temáticos. El primero de ellos, «La presencia de las víctimas en la educación para la paz», fue presentado por Josu Ugarte, director de Bakeaz, y giró en torno a las reflexiones planteadas por Xabier Etxeberria, catedrático de Ética de la Universidad de Deusto y responsable del Área de Educación para la paz y los derechos humanos de Bakeaz, y por Maite Pagazaurtundua, presidenta de la Fundación de Víctimas del Terrorismo.

La ponencia de Xabier Etxeberria resaltó la necesidad de que las víctimas del terrorismo estén presentes en la educación para la paz. No obstante, esta presencia resulta difícil, desde el punto de vista pedagógico y social, por lo que Etxeberria sugiere una serie de pautas para facilitar la tarea: se exponen los modos posibles de la presencia de las víctimas en las aulas y las condiciones precisas para que el encuentro sea positivo, y se indagan las orientaciones pedagógicas pertinentes para hacer fecunda dicha presencia.

Maite Pagazaurtundua reflexionó sobre el valor de los conceptos para las víctimas del terrorismo: no hay que transigir con el mal uso de las palabras (*terrorismo, víctima, conflicto*, etc.), porque éste favorece el proceso de legitimación semántica del mundo de los terroristas y devalúa la memoria de las víctimas y la petición de justicia y reparación de las mismas. Asumiendo la dificultad de abordar la necesaria educación para la paz en el País Vasco cuando no existe una definición unánime de estos términos, se propone tomar como base dos conceptos compartidos por la mayoría: el derecho a la vida y la libertad de pensamiento como bienes supremos.

Las ideas principales de estas dos ponencias y del debate posterior fueron recogidas por Ricardo Arana, enseñante y periodista.

El segundo bloque temático, presentado por Mikel Mancisidor, director de UNESCO Etxea, se centró en el derecho humano a la paz. Carlos Villán Durán, jurista de la Oficina del Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos, disertó sobre el proyecto de responder a la actual crisis internacional codificando el derecho humano a la paz, un derecho autónomo, con vocación universal y contenidos propios, que incorpora una concepción positiva de la paz. Tiene además una doble naturaleza, individual y colectiva, y es un derecho de solidaridad y de síntesis, porque engloba todos los demás derechos humanos.

La intervención de Carmen Magallón, directora del Seminario de Investigación para la Paz de Zaragoza, subrayó esta necesidad de

afirmar el derecho humano a la paz como valor universal y de trasladarlo a la esfera política y jurídica. Una de las resistencias que se levantan ante la paz como valor y ante su reconocimiento como derecho humano va unida a la exclusión de la tradición política que comparten la paz y las mujeres. Lo que las mujeres pueden aportar al derecho humano a la paz cae precisamente del lado de los vacíos de la tradición política en la que crecen los derechos humanos. El contenido del derecho humano a la paz debería concebir la paz de un modo que incluya la experiencia de hombres y mujeres, tanto en el ámbito público como en el privado, escuchando las voces que llegan desde los grupos excluidos.

La relatora de esta segunda unidad temática fue Dominique Sallard, consultora en temas de género y cultura de paz.

El tercer bloque, presentado por María Oianguren, directora de Gernika Gogoratuz, con el título «¿Es deseable y posible la reconciliación en el País Vasco?», contó con las intervenciones de Galo Bilbao, profesor de Ética de la Universidad de Deusto y miembro del Instituto Diocesano de Teología y Pastoral de Bilbao, y de Mario López, ex director del Instituto por la Paz y los Conflictos de la Universidad de Granada.

Tras analizar los diversos componentes de la reconciliación de acuerdo con la realidad concreta del País Vasco, Galo Bilbao concluyó que en estos momentos no se puede hablar propiamente de un horizonte inmediato de reconciliación. Sin embargo, a pesar de la persistencia de la violencia terrorista y de la ausencia de un proyecto político de convivencia compartido, también es posible destacar otros elementos que podrían coadyuvar a la consecución de la deseada reconciliación en el País Vasco.

Mario López se refiere a la reconciliación como una telaraña de conceptos que es preciso conocer para poder abordar procesos de reconstrucción y sanación. El problema de la confusión de los conceptos implicados en la reconciliación puede resolverse a través de las *gramáticas* de la reconciliación, es decir, un conjunto de normas, procedimientos y tratamientos de los que cada sociedad se dota para emprender y culminar el difícil proceso hacia la normalización, democratización y pacificación, que permiten superar las violencias del pasado y finalizar con éxito la reconciliación.

Las conclusiones del tercer bloque de intervenciones y del debate subsiguiente fueron recopiladas por Susana Harillo, enseñante.

Por último, la comunicación «Reconocimiento de los conflictos y los espacios de paz en el País Vasco. Una propuesta desde la paz imperfecta», de Francisco A. Muñoz y Nieves Aranguren Vigo, refle-

ja la presencia de múltiples conflictos interrelacionados en el País Vasco, y sostiene que el reconocimiento de la conflictividad, de sus regulaciones por vía pacífica, de las múltiples paces *imperfectas*, de las posibilidades de las organizaciones y los movimientos sociales en interacción con las instituciones democráticas, puede favorecer un *empoderamiento pacifista*.

Encuentro de la Asociación Española de Investigación para la Paz, AIPAZ

Gernika, 14 y 15 de octubre de 2005

El papel de la investigación para la paz ante la violencia en el País Vasco y sus derivaciones sociopolíticas

13 de octubre, jueves

20.00 h Llegada de los miembros de AIPAZ
21.00 h Cena de bienvenida

14 de octubre, viernes

09.00-09.30 h Recepción y entrega de materiales
09.30-10.00 h Inauguración

- Xesús R. Jares, presidente de AIPAZ
- Miguel Ángel Aranaz, alcalde de Gernika-Lumo y presidente de la Fundación Gernika Gogoratuz
- Maixabel Lasa, directora de la Dirección de Atención a las Víctimas del Terrorismo del Gobierno Vasco

10.00-10.30 h **Ponencia marco:** Xesús R. Jares, presidente de AIPAZ

10.30-11.45 h **Primer bloque temático: La presencia de las víctimas en la educación para la paz**

Moderador: Josu Ugarte, director de Bakeaz
Relator: Ricardo Arana, enseñante
Ponentes:

- Xabier Etxeberria, catedrático de Ética de la Universidad de Deusto y responsable del Área de Educación para la paz y los derechos humanos de Bakeaz
- Maite Pagazaurtundua, presidenta de la Fundación de Víctimas del Terrorismo

11.45-12.15 h Descanso
12.15-14.00 h Debate
14.30-16.00 h Almuerzo
16.00-17.15 h **Segundo bloque temático: El derecho humano a la paz**

Moderador: Mikel Mancisidor, director de UNESCO Etxea
Relatora: Dominique Saillard, consultora en temas de género y cultura de paz
Ponentes:

- Carlos Villán Durán, jurista de la Oficina del Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos
- Carmen Magallón, directora del Seminario de Investigación para la Paz de Zaragoza

17.15-17.45 h Descanso
17.45-19.30 h Debate
21.00-23.00 h Cena

15 de octubre, sábado

10.00-11.15 h **Tercer bloque temático: ¿Es deseable y posible la reconciliación en el País Vasco?**

Moderadora: María Oianguren, directora de Gernika Gogoratuz
Relatora: Susana Harillo, enseñante
Ponentes:

- Galo Bilbao, profesor de Ética de la Universidad de Deusto y miembro del Instituto Diocesano de Teología y Pastoral de Bilbao
- Mario López, ex director del Instituto de la Paz y los Conflictos de la Universidad de Granada

11.15-11.45 h Descanso
11.45-13.30 h Debate
13.30-14.30 h **Conclusiones** a cargo de los relatores
14.30-16.00 h Almuerzo
16.00-18.30 h **Asamblea de la Asociación Española de Investigación para la Paz**
19.30-21.00 h **Visita al Museo de la paz**
21.00-23.00 h Cena



Constituida en 1997, AIPAZ es una asociación que, con una mirada global, multidisciplinar y crítica, se preocupa por estudiar todos los fenómenos relacionados con la violencia; y entiende la paz no sólo como ausencia de conflictos bélicos sino también como presencia de justicia social, desarrollo sostenible, ejercicio democrático de la ciudadanía, y cumplimiento de los derechos humanos dentro y entre estados. Por consiguiente, se declara opuesta a cualquier tipo de violencia y comprometida con aquellos valores y prácticas sociales tendentes a la construcción de una cultura y sociedad de paz.

AIPAZ. Asociación Española de Investigación para la Paz
Departamento de Sociología II
Universidad de Alicante
Apdo. Correos 99, E-03080, Alicante, España
<http://www.ua.es/es/cultura/aipaz/>



Sarrera

Liburu honetan, Bakerako Ikerketei buruzko Espainiako Elkar-teak 2005. urtean egindako Topaketan ateratako ondorioak biltzen dira. Gernikan urriaren 14an eta 15ean egindako topaketa hori AIPAZ erakundeak antolatu zuen, Bakeaz, Gernika Gogoratuz eta UNESCO Etxea erakunde kideekin batera. Zehazki, topaketaren hasierako esparru-txosten eta hiru gai-multzoetako aurkezpenak, txostenak eta eztabaidak biltzen dira liburuan, baita komunikazio bat ere.

2005eko topaketaren izenburua honako hau izan zen: *Bakerako ikerketaren zeregina Euskal Herriko indarkeriaren esparruan eta haren eragin soziopolitikoa*. Miguel Ángel Aranaz Gernika-Lumoko alka-teak eta Gernika Gogoratuz Fundazioaren presidentek eman zuen hasierako hitzaldia. Ongietorria emateko hitzak, berriz, Xesús R. Jares AIPAZ erakunde presidentek eta Maixabel Lasa Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzako zuzendariak eman zituzten.

Ondoren, Xesús R. Jaresek eman zion hasiera topaketari, «El papel de la investigación y la educación para la paz ante la violencia terrorista. La respuesta educativa en el País Vasco» (Bakerako ikerketaren eta hezkuntzaren egitekoa indarkeria terroristaren aurrean. Hezkuntza-erantzuna Euskal Herrian) izeneko txostena aurkeztuz. Jaresek terrorismoari buruzko analisiak eskolako curriculumean sartu behar direla proposatu zuen; zehazki, Euskal Herriko kasuan, ETaren terrorismoa geletan ere aztertu behar dela proposatu zuen Jaresek. Horrez gain, gizarteko maila guztietan biktimekiko elkartasun- eta adiskidetze-prozesuak gauzatu behar direla ere adierazi zuen. AIPAZ erakunde presidentearen proposamenaren arabera, funtsezko lau alderdi landu behar dira: giza biziaren eta pertsona

guztien duintasunaren balioa azpimarratzea; manikeismoekin kon-tuz ibiltzen eta etsaiaren irudiaren sorkuntzarekin kritiko izaten hez-tea, eta gorrotoa baztertzeko eta saihesteko heztea; beldurrari eta mesfidantzari aurre egitea; eta biktimekiko elkartasun-jarrerak piz-tea eta horiek subjektu hezitzailetzat hartzea.

Topaketaren gainerako atalak hiru gai-multzotan antolatu ziren: lehena, «Biktimen presentzia bakerako hezkuntzan» izeneko, Josu Ugarte Bakeaz erakundeko zuzendariak aurkeztu zuen. Gai-multzo honetan, Xabier Etxeberria Deustuko Unibertsitateko Etikako kate-dradunak eta bakerako hezkuntza Arloko arduradunak egindako hausnarketak izan ziren hizpide, baita Maite Pagazaurtundua Terro-rismoaren Biktimen Fundazioko presidentearenak ere.

Xabier Etxeberriak azpimarratu zuenez, funtsezkoa da terroris-moaren biktimek bakerako hezkuntzan toki bat izatea. Hala ere, presentzia hori lortzea ez da gauza erraza, ez ikuspegi pedagogi-kotik, ez gizarte-ikuspegitik; horretaz oharturik, zenbait jardunbide proposatzen ditu Etxeberriak, lana errazte aldera: biktimek ikasge-letan toki bat izateko dauden moduak agertu zituen, baita topake-ta hori positiboa izateko behar diren baldintzak ere. Azkenik, beha-rrezko orientabide pedagogikoetan ere sakondu zuen, presentzia horrek emaitza onak eman ditzan.

Maite Pagazaurtunduak terrorismoaren biktimentzat kontzep-tuek duten balioaz egin zuzen gogoeta: hitzak behar bezala erabili behar dira (*terrorismoa, biktima, gatazka, etab.*) eta ez da bestelakorik onartu behar. Izan ere, hitzak gaizki erabiliz, erraztu egiten da terroristen munduko zilegitasun semantikoa eta, horrez gain, balioa kentzen zaio biktimen oroimenari, justizia-eskakizunei eta biktimei zor zaien ordainari. Euskal Herrian bakerako hezkuntzari heltzea behar-beharrezkoa izan arren, ez da batere lan erraza, ez baitago hitz bakoitzaren definizio bateraturik. Horrenbestez, gehiengoak adostutako bi kontzeptu oinarritzat hartzea proposa-tzen du Pagazaurtunduak: bizitzeko eskubidea eta pentsamendu-askatasuna, goreneko ondare gisa.

Bi txosten horien ideia nagusiak eta ondoko eztabaida Ricardo Arana irakasleak eta kazetariak bildu zituen.

Bigarren gai-multzoa Mikel Mancisidor UNESCO Etxeko zuzendariak aurkeztu zuen, eta bakerako giza eskubidea izan zuen ardatz nagusi. Carlos Villán Durán Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoko legelariak egungo nazioarteko krisiari bakerako giza eskubidea kodifikatuz erantzuteko proiektua izan zuen hizpide: Duránek autonomotzat hartzen du giza eskubi-de hori eta, bokazio unibertsala izateaz gain, berezko edukiak

dituela gaineratu zuen. Giza eskubide horrek bakearen ikuspegi positiboa barne hartzen du eta izaera bikoitza duela esan daiteke: indibiduala, batetik, eta gizarte-mailakoa, bestetik. Duránek nabar-mendu zuenez, elkartasunean eta sintesian oinarritzen da bakerako giza eskubidea, gainerako giza eskubide guztiak biltzen baititu.

Carmen Magallón Zaragozako Bakerako Ikerketa Mintegiko zuzendariak bakerako giza eskubidea balore unibertsaltzat hartu eta eremu politikora eta juridikora eraman behar dela azpimarratu zuen. Aitzitik, hainbat traba agertzen dira bakea baloretzat hartzeko eta bakea giza eskubidetzat onartzeko orduan. Honako hau da traba horietako bat: bakea eta emakumeak tradizio politikotik aldentuta egon direla. Bakerako giza eskubidearen arloan emakumeek egin ditzaketen ekarpenak galdu egiten dira giza eskubideak hazten diren tradizio politikoaren hutsuneetan. Bakerako giza eskubidearen edu-kiak gizonen eta emakumeen esperientziak bilduz ulertu beharko luke bakea, bai eremu pribatuan, bai eremu publikoan, baztertutako taldeetatik iristen zaizkigun ahotsei so eginez.

Bigarren unitate tematiko horren kontalaria Dominique Saillard genero-gaietako eta bake-kulturarako aholkularia izan zen.

Hirugarren gai-multzoa María Oianguren Gernika Gogoratuz erakundeko zuzendariak aurkeztu zuen, «Euskal Herria berradiski-detu nahi al dugu? Bideragarria al da?» izenburupean. Gai-multzo honetako parte hartzaileak Galo Bilbao Deustuko Unibertsitateko Etika irakaslea eta Bilboko Elizbarrutiko Pastoral eta Teologia Insti-tutuko kidea eta Mario López Granadako Unibertsitateko Bakeari eta Gatazkei buruzko Institutuko zuzendari ohia izan ziren.

Euskal Herriko errealtate zehatza abiapuntutzat hartuta adis-kidetzaren osagaiak aztertu ondoren, Galo Bilbaok honako ondori-o hau atera zuen: une hauetan ez dela hautematen berehalako adiskidetze-itxaropenik. Hala ere, indarkeria terroristak bere horretan jarraitzen duen arren eta bizikidetzarako proiektu politiko par-tekaturik ez badago ere, badira beste zenbait alderdi azpimarraga-ri Euskal Herrian hain desiratua den adiskidetzea lortzen lagun dezaketenak.

Mario López kontzeptu-armiarma gisa definitu zuen adiskide-tzea: armiarma hori ondo ezagutzea ezinbestekoa dela ere azpima-rratu zuen, berreraikitze- eta sendatze-prozesuei heldu ahal izate-ko. Adiskidetzarekin lotutako kontzeptuen nahasketak dakarren arazoa adiskidetzaren *gramatiken* bidez konpon daiteke: hau da, gizarte bakoitzak normalizaziorako, demokratizaziorako eta bake-rako prozesu zaila hasteko eta burutzeko sortzen dituen arau-, pro-zedura- eta tratamendu-multzoaren bidez, horiek ematen baitute

iraganeko indarkeria-egoerak gainditzeko eta adiskidetzearraskatuz burutzeko aukera.

Hirugarren gai-multzoan esandakoak eta horien ondoriozko eztabaidak Susana Harillo irakasleak bildu zituen.

Azkenik, Francisco A. Muñozen eta Nieves Aranguren Vigoren komunikazioak («Reconocimiento de los conflictos y los espacios de paz en el País Vasco. Una propuesta desde la paz imperfecta» —Gatazken onarpena eta bake-eremuak Euskal Herrian. Bake akastun batetik egindako proposamena—) agerian utzi zuen Euskal Herrian elkarri lotutako hainbat eta hainbat gatazka daudela. Komunikazio horren egileek adierazi zutenenez, gatazkek onartzea eta horiek bake-bidetik konpon daitezkeela onartzea lagungarria izan daiteke *jabekuntza bakezalea* lortzeko, baita hainbat eta hainbat bake *akastun* daudela onartzea eta gizarte erakundeek nahiz mugimenduek erakunde demokratikoekin elkarlanean dituzten aukerak onartzea ere.

Bakerako Ikerketei buruzko Espainiako Elkartearen Topaketa (AIPAZ, Asociación Española de Investigación para la Paz)

2005eko urriaren 14 eta 15ean, Gernika-Lumon

Bakerako ikerketaren zeregina Euskal Herriko indarkeriaren esparruan eta haren eragin soziopolitikoa

Urriak 13, osteguna

20.00 AIPAZeko kideen harrera ekitaldia
21.00 Ongi etorri afaria

Urriak 14, ostirala

09.00-09.30 Langaien banaketa
09.30-10.00 Harrera ekitaldia

- Xesús R. Jares, AIPAZeko presidentea
- Miguel Ángel Aranaz, Gernika-Lumoko alkatea, Gernika Gogoratuz Fundazioko presidentea
- Maixela Lasa, Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzako zuzendaria

10.00-10.30 **Hitzaldi markoa:** Xesús R. Jares, AIPAZeko presidentea

10.30-11.45

Lehen gai multzoa: Biktimen presentzia bakerako hezkuntzan

Moderatzailea: Josu Ugarte, Bakeaz erakunde zuzendaria

Narratzailea: Ricardo Arana, irakaslea

Hizlariak:

- Xabier Etxeberria, Deustuko Unibertsitateko Etikako katedraduna eta Bakeazko bakearen hezkuntzarako eta Giza Eskubideetarako Sailaren arduraduna
- Maite Pagazaurtundua, Indarkeriaren Biktimen Fundazioko presidentea

11.45-12.15

Atsedena

12.15-14.00

Eztabaida

14.30-16.00

Bazkaria

16.00-17.15

Bigarren gai multzoa: Bakea giza eskubide lez

Moderatzailea: Mikel Mancisidor, UNESCO Etxeko zuzendaria

Hizlaria: Dominique Saillard, genero gaietan eta bakearen kulturaren aholkularia

Hizlariak:

- Carlos Villán Durán, Nazio Batuen Giza Eskubideen Goi Kontseilaritzaren Bulegoaren legegilea
- Carmen Magallón, Zaragozako Bakerako Ikerketa Mintegiko zuzendaria

17.15-17.45

Atsedena

17.45-19.30

Eztabaida

21.00-23.00

Afaria

Urriak 15, larunbata

10.00-11.15

Hirugarren gai multzoa: Euskal Herria berradiskidetu nahi al dugu? Bideragarria al da?

Moderatzailea: María Oianguren, Gernika Gogoratuz erakunde zuzendaria

Hizlaria: Susana Harillo, irakaslea

Hizlariak:

- Galo Bilbao, Deustuko Unibertsitateko Etika irakaslea eta Bilboko Elizbarrutiko Pastoral eta Teologia Institutuko kidea

- Mario López, Granadako Unibertsitateko Bakeari eta Gatazkei buruzko Institutuko zuzendari ohia

| | |
|-------------|---|
| 11.15-11.45 | Atsedena |
| 11.45-13.30 | Eztabaida |
| 13.30-14.30 | Hizlarien iritzi laburtuak |
| 14.30-16.00 | Bazkaria |
| 16.00-18.30 | Bakerako Ikerketei buruzko Espainiako Elkartearen Topaketa |
| 19.30-21.00 | Bakearen Museoaren bisitaldia |
| 21.00-23.00 | Afaria |



AIPAZ elkarte 1997. urtean sortu zen eta indarkeriarekin lotutako gertakari guztiak aztertzea du helburu, diziplina anitzeko ikuspegi globala eta kritikoa oinarri hartuta. Elkarte horren arabera, bakea ez da gerra-egoerarik eza soilik. Benetako bakeak honako baldintza hauek eskatzen ditu: gizarte-justizia, garapen iraunkorra, herritarrek demokrazian parte hartzea eta estatuetan eta estatuen artean giza eskubideak errespetatzea. Horrenbestez, elkarteak gaitzetsi egiten du edozein indarkeria-mota, bakean oinarritutako kultura eta gizarte eraikitzeke balore eta jarduteak bultzatuz.

AIPAZ. Asociación Española de Investigación para la Paz
(Bakerako Ikerketei buruzko Espainiako Elkarte)
Departamento de Sociología II
Universidad de Alicante
Apdo. Correos 99, E-03080, Alicante, España
<http://www.ua.es/es/cultura/aipaz/>

